



EPE 2016 – Espezialitate berriak eskuratzeko prozedurak Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa

2016ko abuztuaren 8an argitara emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian **espezialitate berria eskuratu duten izangaien behin betiko zerrenda**, espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran.

Aurkeztu beharreko agiria: Deialdiaren 23.4 oinarria.

Hogei egun naturaleko epean, espezialitate berria eskuratu duten izangaien behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (**2016ko ABUZTUAREN 9tik 29ra ARTE, BIAK BARNE**), Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu beharko dute honako hau ziurtatzen duen **agiria**, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina: **ez dela kondenatua izan**, epai irmoz, sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik (horien artean dira sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpenak, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeak galbidean jartzea), baita gizakien salerosketagatik ere.

Hala ere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari aipatutako datuak egiaztatze-sistema elektronikoen bitartez kontsultatzeko berriazko baimena ematen diotenen ez dute aurkeztu beharko.

Baimen hori eman beharko dute Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Interneteko helbidean: www.irakasle.eus («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz), izapide hori bete beharko du “Adingabearen babesa” atalean (Pasa-hitza ez bada gogoratzen edo galdu bada, www.irakasle.eus-en berri bat lortu ahal izango da, “Pasahitza eskuratzea (edo berreskuratzea)” aukeratuz).

Prozedura honen bidez, espezialitate berria bat eskuratzen dutenak praktika-alditik salbuetsita geratuko dira.

Espezialitate berria bat lortzeak ez du esan nahi ordu arteko aurrekoa edo aurrekoak galtzen d(ir)enik. Espezialitate bat baino gehiago hartua dutenek horietako bakoitzari dagozkion lanpostuetara sartu ahal izango dira irakaskuntzako funtzionarioen lanpostuak betetzeko ezarritako mekanismoen bidez.